

## 2017KO MARTXOAREN 10KO 26/17 ZKDUN DEKRETOA

Arteako Udalbatzak 2017-2-14ko Osoko Bilkuran, “ARTEAKO HAUR ETA GAZTETXOEN AISIALDI ZERBITZUA”ren zerbitzua lehiaketa bidez esleitzeko Baldintza Pleguak onartzea eta kontrataziora ateratzea onartu zuen.

Baldintza Plegu hoietan errakuntza batzuk eta argipen batzuk egiteko beharrezkoak ikusi da, beraz, hurrengo zuzenketak eta argipenak egitea beharrezkoak ikusten da:

### **“ZAZPIGARRENA: GIZA BALIABIDEAK:**

#### Dioen lekuan:

“Zerbitzua behar den moduan eskaini ahal izateko, hezitzaile bat jarriko du esleipendunak zerbitzua irekita dagoen ordutegian. Koordinazio eta dinamizazio lanak bete beharko ditu, bien artean gutxienez astean 15 orduko lanaldia beteaz (langileek programazioaren prestaketarako astean 2,5 ordu izango ditu eta hitzarmeneko 3.kategoriako kontratazioa izan beharko da eta 12,5 4. kategoriakoak). Urtean zehar egingo diren programazio berezietan, gabonetan, aste santuan eta udan langileari beharrezkoak diren ordu gehikuntzak egin beharko zaizkio kontratuan programazioen arabera.

Zerbitzua behar den moduan eskaini ahal izateko, hezitzaile bat jarriko du esleipendunak zerbitzua irekita dagoen ordutegian. Koordinazio eta dinamizazio lanak bete beharko ditu, bien artean gutxienez astean 15 orduko lanaldia beteaz (langileek programazioaren prestaketarako astean 3 ordu). Urtean zehar egingo diren programazio berezietan, gabonetan, aste santuan eta udan langileari beharrezkoak diren ordu gehikuntzak egin beharko zaizkio kontratuan programazioen arabera.”

#### Esan behar du:

“Zerbitzua behar den moduan eskaini ahal izateko, hezitzaile bat jarriko du esleipendunak zerbitzua irekita dagoen ordutegian. Koordinazio eta dinamizazio lanak bete beharko ditu, bien artean gutxienez astean 15 orduko lanaldia beteaz (langileek programazioaren prestaketarako astean 2,5 ordu izango ditu eta 12,5 ordu umeen ekintzak burutzeko, 4. kategoriakoan). Urtean zehar egingo diren programazio berezietan, gabonetan, aste santuan eta udan langileari beharrezkoak diren ordu gehikuntzak egin beharko zaizkio kontratuan programazioen arabera.

Udalekuetarako 3 kategoriako zuzendari baten kontratazioa burutu beharko da eta gero ume kopuruaren arabera 4 kategoriako beharrezkoak diren begiraleak.”

Eta kontutan hartuta, 7/85 Herri Ardularitzaren Oinarrizko Legearen 21. Artikuluaren arabera, Alkate jauna ebatzi hau hartzeko ahalmena daukala, hurrengoa,

### **EBATZI DUT**

LEHENIK.- Goian aipatzen diren, “ARTEAKO HAUR ETA GAZTETXOEN AISIALDI ZERBITZUA”ren zerbitzua lehiaketa bidez esleitzeko Baldintza Pleguetako zuzenketa eta argipenak onartzea.

BIGARRENIK.- Erabaki hau BAO-an argitaratzea, eta hau argitaratzen denetik, hamabost (15) lanegun epea zabaldu eskaintzak aurkeztu ahal izateko

HIRUGARRENIK.- Erabaki hau Udalbatzak berretsi beharko du hurrengo osoko bilkuran.

Alkate jaunak agindu eta sinatua, Idazkaria naizen honen aurrean..

ALKATEA

IDAZKARIA